

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Up to Date aplikazioak lortu nahi dugun dinamismoa izan dezan, lau societate lehiakideekin elkartuko gara. Egia da, bostok zerbitzu desberdinak eskaintzen ditugula, haatik, gure segmentazioa berdina da. Orduan, zertarako bilduko gara? gure proiektua osatzeko, ikasleek elkarrekin ikasten hasteko (sinergia lor dezaten), bide batez, aldaketa klimatikoaren kontra egiteko, eta gure ikasleok motibatzeke, hau da, baliabideak eskuratzeko. Azken finean, hau da gure helburu nagusia, hezkuntzan galduta sentitu direnei bideratzea eta motibatzea eta nota hobekia lortu nahi dituzten ikasleak laguntzea. Hona hemen lau enpresak zeintzuekin elkartuko garen:

- **Quizizz** → webgune honek eskaintzen duen zerbitzua gai bati buruzko testa egitean datza, non modu kolektibo batean egiten den denbora murriztu batean. Jolasa bukatzean irabazleak daude, txapelketa bat da alegia. Beraz, ikasleentzat tresna erabilgarria delakoan gaude. Izan ere, kontzeptuak modu dinamiko eta entretenigarri batean ikasi eta birpasatzen dira. Ikasteko teknika desberdina da ikasleek ondo baloratzen ohi dutena. Bestalde, taldean jolasten da. Modu honetan, ikastea dibertigarria ere izan daitezkeela ikus dezakete.



Gure aplikazioan “Quizizz” izeneko atal bat egongo da, eta bertan irakasleek prestatutako jolasak egongo dira. Horietan, ikasleek beste ikaskide batzuekin elkartuz edo bakarka parte har dezakete.

- **My study life** → zerbitzu doain hau, arlo akademikoarekin zerikusia duena, ikasleen zereginak antolatzeko prestatuta dago, datak zehazteko alegia. Horregatik, ikasleentzat da bereziki, ordutegiak, zereginak eta azterketen edo azterketa partzialen data garrantzitsuak antolatzeko. Era berean, gurasoek errazago izango lukete seme-alaben antolaketa eta datak jakiteko.
- **Evernote** → aplikazio honen eta webgunearen oinarria oharrak dira, izenak adierazten duen bezala. Tresna hau oso interesgarria da apunteak egiteko, zure ordutegiak eta data garrantzitsuak kudeatzeko eta pantaila-irudiak eta zirriborroak egiteko. Hau oso baliagarria da bai langilearentzat bai ikaslearentzat; izan ere, askotan, zerbait ikastea edo ulertzea ezinezkoa denean, marrazki edo grafiko batek ideia laburtzen du eta errazago ikusten

da. Hala, funtzio hau testuei melodiak gehitzeko gure funtzioaren atal berean egongo da.

- **Forest** → doako aplikazio honek ikasleak bere zereginetan kontzentratzea du helburu, hau da, denbora zehatz batean (ikasleak zehazten duena) mugikorra ukitu gabe egotea. Zerbitzu honekin, bezeroak arautzen du kontzentrazio-denbora. Gainera, kontzentratzeko zenbat eta denbora gehiago programatu, orduan eta zuhaitz gehiago landatuko ditu “Trees for the Future” GKEak; izan ere, aplikazio horrek GKEarekin lankidetzan dihardu, landaketa birtual bakoitzean lortutako txanponek bizitza errealean landatzeko balio dezaten.



Ingurumena aplikazio batekin lotzeko ideia oso interesgarria iruditu zitzaigun, eta horregatik haiekin kolaboratuko dugu.

FUNTSEZKO ERAGILEEN BETEBEHARRAK

Ane Aizpuru, Irati García, Arene Ahumaran eta Eider Becerril enpresako jabeak izanez, eginkizun hauek beteko ditugu*:

- **Ane Aizpuru** → jendearekin harremanetan jartzeaz arduratuko da, hau da, deiei eta posta elektronikoari kasu egiteaz eta hitzaldiak eta telekonferentziak eskola, institutu eta guraso-elkarteei eskaintzeaz. Modu honetan, panfletoak eta paper informatzaileak eraman ahal izango ditu haurren eta nerabeen tutoreei informazioa emateko. Azkenik, Anek sare sozialetara eduki berriak igotzeko prozesuan parte hartuko du.
- **Irati García** → publizitateaz eta irakasleen prestakuntzaz arduratuko da (ikasleak motibatuzko zein eduki-mota igo behar den eta emango den edukiaren diseinua azaltzea).



Iratik banatuko diren panfletoak diseinatu eta inprimategira eramango ditu; gainera, sare sozialetan eta aplikazioan argitaratuko den edukia sortu eta diseinatuko du. Ondoren, Anerekin parte hartuko du sare sozialetara eduki berriak igotzeko prozesuan.

- **Arene Ahumaran** → matematikako irakasleetako bat izango da, izan ere, matematiketan jaioa da, hau da, orain arte matematiketan emandako materia menperatzen du eta bere kabuz bere aplikazioak eta informazio gehigarria ikasi egin ditu. Gainera, ingenieritza gradu bat egingo du. Modu honetan, irakasleek eroso sentitzen diren edo ez jakingo dugu.
- **Eider Becerril** → aplikazioa eguneratzeaz eta kontuak eramateaz arduratuko da. Jakinarazpenak eguneratzeaz gain, irakasleek igotzen duten edukia kontrolatuko du, plataforman eduki desegokia igo ez dadin.

***Laurok gurasoentzako laguntza atalean parte hartuko dugu.**